

OXFORDEKO UNIBERTSITATEKO **IKERTZAILE BISITARI IZATEKO LAGUNTZAREN** **DEIALDIA 2019**

Xedea

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak deialdia egin du laguntza bat emateko Oxfordeko Unibertsitateko St Antony's College-n ikertzaile batek egonaldia egin dezan 2019-2020 ikasturtean.

Diziplinak:

Historia modernoaren politika, nazioarteko harremanak, ekonomia, gizarte-zientziak, antropologia eta nazioarteko zuzenbidea.

Iraupena:

Egonaldiaren iraupena ikasturte osokoa izango da.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- Euskal Autonomia Erkidegoan behintzat urtebetez bizi izana 2018ko urtarrilaren 1ean. Hala ere, antzinatasun bera izanik, atzerrian bizi direnen eskabideak ere onartuko dira, baldin eta atzerrian bizi diren espainiarren erroldaren (AEE) bidez Euskal Autonomia Erkidegoan auzotasuna badute eta atzerrian bizi aurreko azken auzotasuna Euskadin izan bada.
- Doktore gradua izatea.
- Ingelesa jakitea.

Eskaerak aurkezteko epea:

2019ko azaroaren 22a arte (egun hori barne)

UPV/EHUko IRIek eskaerak aurkezteko prozedura:

Eskatzaileek UPV/EHUrekin lan harremanik izanez gero, egonaldiak dirauen artean kanpoan egoteko baimena edo lizentzia eduki beharko dute.

GARRANTZITSUA: Eskatzaileak berak aurkeztu behar du dokumentazioa epe barruan online aplikazioaren bidez, deialdiko 4. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Informazio gehiago:

https://www.euskadi.eus/dirur_laguntza/2019/ikeroxford/web01-s2hhome/eu/